

XIX. mendeko bollodrama banpirikoa




ZIRIKA
Iraitz Urkulo

Aldez aurretik zenbat eta guxtiago ezagutu, orduan eta gozamen handiagoa. Hala izan ohi da literaturan. Horregatik, ez dut ulertzen zergatik ematen den maiz jakintzat irakurleko literatura unibertsaleko klasiko guzti-guztien berri dugula, baina argi dago multzo horretako obrei ez zaiela spoilerrrik ez egiteko ituna aplikatzen. Zenbat irakurraldi zapuztuko zituen zuhurtzia falta horrek!

Carmilla lan erakargarria da azaletik bertatik. Alain Urrutia-ren emakume margolanak ezin hobeto gorpuzten du pertsonaia. Haren edertasun zuri-beltezkoa. Sentsualtasun barea. Begirada itzalpean ezkutatzeko duenaren misterioa. Bi letagin luzeak gehiegi kontaktzen dute, ordea. Lastima.

Eta liburua ireki baino lehen ere, ezinbestean, XIX. mendeko istorio bati ekin aurreko halako urduritasun arina. Azaleko geruza zeharkatzeko eta arrotzak zaizkidan garai, inguru eta kode urrunak ulertzeko gai izango ote naizen beldur txiki hori, batetik. Testua bera eta bertan kontaktzen direnak ondo zahartu ote diren zalantza eta kezka, bestetik; orduko sentsibilitatea



Carmilla liburuaren azala. I. URKULO

erabat ezberdina izango baitzen, eta jatorrizko irakurleen interpretazio eta harrera ere oso bestelakoak, noski.

Azteko azalean esaten zaigunez, bi neska gazteren arteko harreman «misterioitsu eta aztoragarria» dago istorioaren erdigunean. Lauso xamarra, berariaz ambigua eta gehienbat iradokia, erantsiko nuke nik. Eta horiek guztiak Le Fanu-ren merituak apatzen ditut, gauza jakina baita misterio eta beldurrezko generoan esplizitutasunak ez duela batera laguntzen. Hala ere, litekeena

ikuspegitik harreman gatzgabea iruditzea. Erromantikoa baino gehiago, noñoa.

Bi emakume protagonisten elkarrekiko desira izugarria da *Carmilla*-ren oinarri eta pizgarri; izugarria hitzaren adiera guztietan. Alferrik dabil, ordea, kontakizunera morbo bila gerturatzen dena. Agerikoa izanagatik, bi neskek sentitzen duten erakarpina isila ere bada. Emozioak barnean gainezka egiten die. Pasio ez tandarik ez, hortaz. Era berean, tentsioa bai, baina neurritz gainera erreakziorik ez da islatzen biktima heriotzarekin dantza makabro batean hasi eta, pixkanaka-pixkanaka, idazleak luzatze horretan atsegin hartu izan balu bezala, gain beheara etorri ahala. Sufrimendua intimoa da, eta ezinegona, gozoa. Dramarik gabeko tragedia.

Baliteke eleberrri honen argumentua xaloezia izatea bizitzea tokatu zaigun maleziak betetako garai honetarako. Intentsitatea beste nonbait dago. Eta, zintzoa izanda, liburua ireki aurretik ere *Carmilla* banpiro bat dela jakiteak irakurketaren hiru laurdenak zapuzten ditu gutxienez, misterioa hedatu aurretik ere hura agerian dagoen heinean. Xarma ukaezina da, halere. Istorioaren gainetik, obra honen bertute nagusia, nire iritziz, plazer estetiko eta transzendentsia uztartzean datza.

Azpimarratzekoa da Maialen Berasategi Catalan itzultzaileak testua euskarara ekartzeko egindako lan itzela. Eta guztiz estimatzekoa da itzultako obra bakoitzean irakurleoi gure hizkuntzaren bikaintasuna opari

egiteko erakusten duen konpromiso irmoa. Hala, euskara trinkoa baina argia erabili du, eta egitura landu eta aldi berean txukun askoak, ulergarritasunaren eta estilo dotorearen mesedetan beti. *Carmilla*-n esaldi orok du garrantzia, ezer ez da edergarri huts, eta Berasategi horren jakitun aritu da: arinek-riatik ihesi, baina astunkerian erori gabe. Eta XIX. mendeko istorioa egungo euskararen emanagatik, pertsonaien hizketa moldeak badu kutsu antigoaleko bat; horra hor itzultzailearen dohaina!

Giro itogarriaren eta natura paisaien deskribapen aberats eta zehatzak gozamen erabatekoa dira, eta eleberriarren egiazko indargunea, genero gotikoa- ren ohiko kontzeptu, ezaugarri eta figurekiko harmonia betean. Naturaz gaindiko gertaerak, elementu fantastikoak eta bestelako kontu esplikaezinak, aldiz, literatura unibertsalean bi mendeko tradizioak maiztuak egon arren, beren funtzioari ederki eusten diote oraindik.

Nik neuk, *Carmilla*-n, aspaldi desagertutako mundu zoragarri batekin egin dut topo. Bizimodua pausatuagoa dena. Gizakiek naturarekin harreman estua dutena. Norberaren hitza, ohorea, errukia, aedeitasuna eta beste balio batzuk oraindik indarrean dauden mundu bat. Gizatiarragoa, benetakoagoa, transzendentalagoa nolabait. Ulertzen sinpleagoa ere bai. Niretzat, *Carmilla*-ren irakurketan murgiltzea funtsezkoa zer den ahaztu aurreko garai batera bidaiatzea izan da. Dena den, genero gotikoari diodan lirlura dela-eta, baliteke nire pertzepzioa erromantizismo gaindosi baten ondorio izatea. Beraz, niri itsuan sinetsi beharrean, hobe duzu zuk zeuk irakurri, lagun. ●



'Carmilla'

J. Sheridan Le Fanu
Erein, 2025